

ALEGIAKO FESTAK 2018: KARTEL ETA LOGO LEHIAKETA

1. Lehiaketa honetan Aralar BHiko ikasle guztiek, 12 urtetik gorako edozein alegiarrek eta Alegia herriarekin zerikusia duen edonork (lana, familia, ikasketak...) parte har dezake.
2. Kartela festetako egitarauaren azala eta logoa egiteko erabiliko da.
3. Tamainak honako hauek izango dira:
 - Kartela A3ko tamaina (42 X 29,7 zm)
 - Logoa 21 X 21 zm tamaina
4. Teknika librea izango da, hau da, eskuz egindako marrazkiak, akuarelaz egindakoak, etab. Formatu digitalean ere aurkez daitezke. Azken kasu honetan gutxienez 300 ppi-ko erresoluzioa izan beharko dute, eta JPG formatuan aurkeztuko dira.
5. Lanek derrigorrez testu hau izan beharko dute: Alegiako festak 2018.
6. Jai horren ezugarriren bat, irudiren bat edo lemaren bat jaso eta adierazi beharko da.
7. Lanak koloretan aurkeztuko dira (logoaren kasuan, gehienez, lau koloretan), originalak, eta beste inon ez aurkeztutakoak.
8. Pertsona bakoitzak hiru lan aurkeztu ahal izango ditu gehienez.
9. Lanarekin batera, eta kartazal itxi baten barnean egilearen datuak sartuko dira (Izen-abizenak, helbidea, telefonoa eta adina). Kartazalaren kanpoan eta kartelaren atzeko aldean, berriz, egilearen goitizena eta kartelerako edo logorako aurkezten den zehaztu beharko da.
10. Lanak 2018ko maiatzaren 18a baino lehen, Alegiako Inaxio Begiristain Kultur Etxera eraman behar dira.
11. Herritarren bozketaren bidez aukeratuko da kartelik onena.
12. Bi sari egongo dira:
 - Kartelaren egilearentzat 150 euroko saria.
 - Logoaren egilearentzat 150 euroko saria.
13. Saritzen diren lanak Udalaren esku geldituko dira eta jaietako egitarauaren azalean bat eta bestea festetako kamixetetan agertuko dira.
14. Aurkeztutako lan guztiekin erakusketa bat antolatuko ahal izango du Jai batzordeak, eta hau amaitu ondoren 15 eguneko epean saririk eskuratu ez duten lanak jaso ahal izango dituzte beren jabeek. Epe hori igarotakoan lanak jaso ez badira, egileek uko egin dietela ulertuko da, eta artistek ez dute erreklamaziorik egin edo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
15. Alegiako udalak berarentzat gordeko ditu lanak editatzeko eta erabiltzeko eskubideak.
16. Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du. Oinarriak betetzen ez dituzten lanak ez dira aurkeztuko erakusketara, hau, Jai Batzordeak erabakiko du.
17. Informazio telefonoa: 943 65 46 98